

Sorj Chalandon kazetariaren iritziz, John Majorrek ez du negoziatzeko borondaterik

# «IRAren berehalako beste su-eten bat? Ez dago horretarako aukerarik»

**I**par Irlandako sei konderrietan ez-ohiko hauteskundeak izan dituzte maiatzaren 30ean. Westminsterreko legebiltzarrean jazarriko diren diputatuak hautatzea baino gehiago beste bat izan dute gaia: ekainaren 10etik aurrera Londresekin konderrien geroa negoziatuko duten 90 ordezkariak aukeratzea. Hauteskunde hauen inguruan mintzatu zaigu Sorj Chalandon kazetari ezaguna, «Liberation» egunkariaren egoitzan.

## **Hauteskundeok zein tes- tuingurutan eratu diren azaldu diezaguzu, Sorj.**

Protestanteen ingurutik sortutako proposamena izan zen. Alderdi politikoak ezertarako ez direla-eta, ideia hori oinarritat hartuta bultzatu zuten hauteskunde prozesua, britainiarrekin bake-bidea nortzuk jorratu behar duten erabakitzeke. Kontuan izan protestanteak direla Ipar Irlandako herritarren gehiengoa. Eta helburu hauxe dute: bake prozesuan ahalik eta ordezkari-tza handiena izatea.

Errepublikarrek uko egin zioten proposamen honi. Plazaratu zenean, eta John Majorrek onetsi, Dublinek zioen: «Argi ibili, ibesi doan zakurrari isatsean su ematen ari zarete eta!». Sinn

Feinen ustez, berriz, errepublikar guztiak hauteskundearen aurka azalduko ziren. Baina, azkenik, Dublinek baietz erantzun zuen; SDLPk ere hauteskundeetan parte hartu egin behar zela zioen... eta Sinn Feinek, boikotak ez zuela aurrera egingo ikusirik, honek ere bere burua aurkeztea erabaki zuen. Hauteskundearen emaitza edozein delarik ere (*bozketa baino astebete lehenago eginga da elkarrizketa hau*) errepublikarrak ez dira negoziazio mahaira bilduko. Eta pozik izango dira britainiarrek, ez baitute Sinn

Fein mahai horretan ikusi nahi. Anglo-loyalisten hauteskundeak dira igandekoak, eta derrigorrez, banaketa geografikoa dela medio, protestanteek esku-ratuko dute gehiengoa. Bi hitzetan esanda: britainiarrek alde guztiakin hitz egingo dute, etsaiekin salbu.

**Beraz, duda-mudatan luzaro ibili ondoren, Sin Feinek hauteskundeetan parte hartzea erabaki zuen.**

Erabat isolatuta zegoen Sinn Fein, eta su-etenari esker lortu zuen fronte errepublikarra osatzea SDLPko mo-

deratu, Hego Irlandako errepublikar eta Amerikako irlandarrekin. Honenbestez, irlandarrentzat ezezik britainiarrentzat ere solaskide baliotsua bilakatu zen. Otsailaren 9an IRAk borroka armatuari berrekin zionean, berriro ere isolatuta geratu zen Sinn Fein. Eta besterik uste bazuen ere -hauteskundeoi boikota egingo zietela, alegia- alderdiok parte hartzea erabaki zuten. Nik neuk dakidanez, animuak ez dabilta oso goitik eta mobilizaziorako kemen handirik ez da ageri. Aspaldiko zenbait ekintzaile errepublikarrek ez dute bo-toa emateko asmorik.

**Londresen eta IRAren negoziazio proiektuek elkarren kontra klak egin dute, bonenbestez.**

Horixe gertatu da, bai. IRAk armak isilarazi zituenean, armada klandestino batek jo lezakeen gehienezko mugara heldu zen. IRA ez zegoen bentzitua, borroka jarraitzeko moduan zen, eta da. Borondate ona erakus-tearren gorde zituen armak,

**«Hamazortzi hilabetez egon dira isilik IRAren armak, eta ez dute deusik ere lortu, ezta ezertxo ere!»**





Sorj Chalandonek dioenez, maiatzaren 30eko hauteskundeak protestante-loyalistentzat soilik izan dira mesedegarri. (Arg: J.Arriola).

gehiagorik ezin zezakeen egin. Lehenbiziko aurre-bal-dintzari, su-eten iraunkor eskariari, ezetz erantzun zion IRAk. Hilabeteko epea eman zioten horretarako. Bigarrenagoan, hiru hilabete itxaron behar zutela zioten britainiarrek, su-etena benetakoa zela frogatzeko. Hirugarrenagoan, armak entregatzeko agindu zioten IRARI.

Armak isilarazi dituen erakunde bati sekula ez zaio eskatu izan, historian zehar, arma horiek etsaiaren eskuetan jartzeko. Hamazortzi hilabetez egon dira isilik IRAREN armak, eta ez dute deusik ere lortu. Ezta ezertxo ere! Tregoari esker hobekuntzarik izan dela diotenak gezurretan ari dira. Belfasten ez da enplegu berri bakar bat ere sortu tarte

horretan. «*Negoziatzeko prest gaude; hitz egin ezazue gurekin eta gainerako guztiekin, moderatuekin, loyalista gogorrenekin; mahaiaaren inguruan bildu eta hitz egin dezagun*» zioen IRAk armak isildu zituenean. Britainiarrek, berriz, nahita luzatu dute prozesua, eta, halako batean, Armada Errepublikarrak atentatuei berrekin zien. Zartatekoa izan zen errepublikarrentzat su-etenaren haustura, negoziatioek aurrera egingo zutela uste baitzuten.

**Zuk diozunez, Londresekin inongo bitzarmenik**

«**Bere karrera politikoak gehiago arduratzen du John Major, Irlanda baketzeak baino**»

**adostu gabe aldarrikatu zuen su-etena IRAk.**

Borondate ona adierazteko ekimena izan zen tregoa, alde aurreko inolako akordiorik gabea. Su-etenak gehiago iraun izan balu, arriskuan jarriko zukeen mugimendu errepublikarren batasuna.

**Bai Sinn Feinen bai IRAn agertu izan da su-etena-ekin konforme ez zenik.**

IRAREN barne funtzionamendua demokratikoa da eta, su-etenik aldarrikatzen bada, erakundeko unitate guztiak biltzen dituen Konbentzioak onetsi behar iza-

ten du. Komandantziak hartu zuen, ordea, erabakia eta ekintzaileek, diziplinatuki, onartu egin zuten. Konbentziorik egin izan balitz gehiengoaren iritzia su-etenaren aurkakoa izango zatekeen, nire ustez. Tregoa aldarrikatuz armak isilarazi zituen IRAREN zuzendaritzak. Eta, aldi berean, barne zati-ketaren arriskua bereganatu ere. Ez zen eszisorik izan.

Hamazortzi hilabete beranduago, eta emaitzak ikusirik, su-etena bertan behera utzi zuen Komandantziak, indarrean jartzeko erabili zuen prozedura anti-demokratiko berbera erabiliz. Pentsa zenbateraino izan zen ustegabekoa su-etenaren haustura IRAkoentzat: Belfasteko goi arduradunek irratian entzun-



da jakin zuten horren berri. Erakundeko Kontseilu Nagusiak, sei edo zazpi lagunek, hartu zuten erabakia. Kolpe gogorra izan zen errepublikar askorentzat: «Beste hamar edo 15 urterako berpiztu dugu gatazka», zioten.

**Hala eta guztiz ere, Londresen izan dira atentatuak azkenaldi bonetan. Ipar Irlandan, aldiz, ezta bat bakarra ere.**


Su-etena hautsia da, baina, aldi berean, Ingalaterran soilik ari da gauzatzen haustura. Zeren eta IRAk Ipar Irlandan atentaturik egingo balu, beste aldekoek -loyalistek- ere eten egingo lukete beren tregoa. Eta odolustea martxan litzateke berriro. Gaur egun bi joera dabilta mugimendu loyalistan. Batzuek diote: «IRAk Londresen ekiten badio, guk Dublino ekingo diogu». Gehiengoak, ordea, nahiago du su-etenari eutsi. Eta IRA Londres aldean, soilik, josten ahalegintzen da.

**John Majorrek ezin izan du negoziatu, edo ez du nahi izan?**

Ez du negoziatu nahi, ene ustez. Gehiengo oso eskasa du parlamentuan. Boterean irauteko Ipar Irlandako beideratzi parlamentari loyalisten laguntza ezinbestekoa du. Horien botorik gabe ezin du ezer egin. Bere karrera politikoak gehiago arduratzen du Major, Irlanda bake-tzeak baino.

«The Irish Times» egunkarian argitaratu berria duen artikulu batean Majorrek zioen espero

«**IRAk aukeratu egin beharko du: Amerikako dirua jasotzen segi edo beregan konfidantza duen jendeari eutsi»**



«Aldegingo dute britainiarrek Ipar Irlandatik, bost edo hamar urte barru agian; baina eurek erabaki nahi dute zein egunetan hartu etxerako bidea», uste du Chalandonek. (Argazkia: Julen Arriola).

**duela IRAren beste tregoa bat ekainaren 10a baino lehen.**

Ez dago horretarako benetakoa aukerarik. Berehalakoan hotsegin nion hainbat ekintzaile errepublikarri eta ezer ez zekitela adierazi zidaten. Ez aurrera ez atzera dagoela egoera iruditzen zait, eta ez dut arrazoirik sumatzen IRAk beste tregoa bat aldarrikatzeko. Su-etena keinu politikoak izan ohi dira eta IRA erakunde armatua da. Bestalde, ez da heldu Londresetik batere borondate on seinalerik.

Munduko obserbatzaile inpartzialenak ere ez luke somatuko egun baldintza egokirik tregoarako. Eta bihar edo etzi su-etenen izango balitz, negoziazio sekreturik eta garantiarik badelako izango da.

**Bill Clintonen eta Amerikako irlandarren esku-bartzeak uste bezainbaterako garrantzia izan al du bake prozesuan?**

Ikaragarria. Irlandar jatorriko amerikarrak 47 milioi dira. Beren buruak irlandartzat, ez britainiartzat, jotzen dituztenak. IRAren biolentzia oso begi onez jotzen ez dutenak gehienak. Su-etena aldarrikatu zen egunean denek txalotu zuten errepublikarrek Dublinekin eta moderatuekin eratutako

frontea. Otsailaren 9an txalo eta babesak desagertu egin ziren. Eta IRAk aukeratu egin beharko du: aliatuen laguntza jasotzen segi edo mugimendu errepublikarren batasuna. Amerikako dirua edo beregan konfidantza duen jendea.

**Zer dela eta segi nahi dute britainiarrek, kosta abala kosta, Irlandan?**

Arrazoi ekonomikoengatik ez behintzat, oso garestia baita Londresentzat Ipar Irlandan tropak edukitzea. Eta gainera, soldadu ugari hiltzen dizkiote. Arrazoi ofiziala, berriz, honako hau: «Ipar Irlanda Liverpool bezain britainiarra da». Modu ofiziosoan besterik ere esaten dute: «Ipar Irlandako herritarren gehiengo bri-



«**Bakeak, Belfasten, badu abizenik: gaez trago bat edatea, kalean ibiltzea, etxeko burdinesiak kentzea**»

*tainiarra den bitartean ezin dugu ezer egin*. Pribatua, 'en petit comité', aitoritu ohi dute britainiarrek «*Aldegingo dugu; bost edo hamar urte barru, baina geuk erabakiko dugu noiz aldegin*». Txipren, Indian, Palestinan... ere horixe egin zuten: ingelesek erabaki dute beti zein egunetan aldegin nonbaitetik. Ez dute ametzitzen inork agintzerik noiz etxeratu behar duten. Eta oraingoan 'bake irlandarra' inposatu nahi izan dietela pentsatu dute. Ipar Irlanda da, izan ere, -Hong Kong eta Gibraltarrekin batera- inperio britainiarraren azken hondarretakoa.

**Otsailaren 9an Londresko City-n lebertutakoa ondorengo 20 urteotan izan daitekeen borroka armatuaren lehenbiziko bomba izan al zen?**

Ez dut uste, zeren eta nekazua dago jendea. IRAko militanteek eurek ere dastatu dute bakea. Eta bakeak, Belfasten, badu izen-abizenik: gaez tragoska bat edan ahal izatea, kalean ibiltzea, etxeko leiho eta ateetatik burdinesiak kentzea... Zoritarrez, negoziatzen ez duten bitartean izango da gerrarik. Justiziarik gabe ez da bakerik izango. Sinn Feinekoak ez dira ergelak eta balizko Irlanda independientean alderdi ttiki bat besterik ez izatea onar dezakete. Ez dute botere goserik. Besteek bezainbateko eskubideak -ez gehiago ez gutxiago- lortzearen ari dira borrokan eta prest dira horren alde bizia emateko. Britainiarrek

dute azken hitza.

**Parisko kazetariak ez dute nahi izaten Irlanda edo Euskal Herriko auziez bitzegin. Salbuespena dugu borretan Sorj Chalandon. «Liberacion» egunkarian argitaratu berria duzun artikulu batek, Josu Urrutikoetxearen espainiaratzeaz, eragin du eztabaidarik Frantzia partean.**

Irain asko jaso ditut, gutun bidez, artikulu horretako esaldi bat dela eta: «*Terroristak edo askatasunaren gudariak, borrek ez digu axola. Frantziako Estatu lege kanpo ari dela, hori da axola behar diguna*». Estatuak beti aritu behar dute legearen baitan. ETAko ekintzaile bat Espainiara bidaltzen dutenean, legeari jaramonik egin gabe, erabateko itxuragabekeria da hori.

**Cbirac Londresen izan berria da, eta ez du aipatu Irlandako auzia. Urrutikoetxearen espainiaratzea, berriz, Aznar presidente izendatu dutenean izan da. Eraikitzeaz dagoen Europa bonetan ezin al liteke bitartekari lanetan aritu Frantzia?**

Ezezkoan nago. Estatuak Europa ari da eraikitzen piskanaka, Herrien Europa hiltorian dagoen bitartean. Frantziak ez du ezer egitekorik alor honetan. Aitzitik, Britainia Handia eta Espainiarentzat gendarme lanak ari da egiten.


**JULEN ARRIOLA**

**MUNDUA EZ DA BIRIBILA**

**FZLN: izar berria ezkerren ortzian**

**U****RTARRILEAN**, matxinada armatuaren bigarren urtebetetzea ospatzean, EZLNk Lacandona Oihaneko Laugarren Agiria plazaratu zuen. Idazki honen mamia erakunde politiko berri baten sorreran zetzan, Frente Zapatista de Liberacion Nacional, hain zuzen. Aldarrikapen hori ez zen sortu EZLNren borondate hutsetik, milioi bat mexikarren eskariei erantzuteko baizik. Izan ere, 'mugitzen den harriak goroldiorik ez'. Harrezkeroztik, ezkerreko erakunde sozial eta politiko gehienak aldarrikapen horren inguruan mugitzen hasiak dira, beren buruak sakabanatuz edo eztabaidari ekinez.

**ORRIOTAN** aipatu izan dugu EZLN ez zela ohiko erakunde armatua. Bai pentsakera estrategikoaren aldetik bai jarduera politikoarenetik izugarrizko berrikuntza zekarkiola Ameriketako ezkerri. Bere helburua ez zela boterea eskuratzea adierazi zutenean, harri eta zur geratu ginen. Boterea eskuratzea izan baita betidanik Ameriketako ezker iraultzaileko erakunde armatuaren -eta ez armatuaren- helmuga.



**JOXE IRIARTE**  
'Bikila'

**BIGARREN** ezaugarria unibertso utopikoaren sinkretismoan zetzan. Ezker tradizionalak ez bezala, indo-amerikarren amankomunitasuna eta Europatik heldutako sozialismoa elkarrekin uztartu nahi zituztela, utopia berri bat sortuz, zioen EZLNk. Mariategi marxista peruarra genuen horrelakorik esan zuen bakararra. Baina Mariategi izar bakartia izan zen Ameriketako ezkerren ortzian. Oraingoan, berriz, komunitate indioen baitatik sortutako mugimendu armatu bat genuen pentsakera horren bultzagilea.

Eta politikagintzatik etorri zaigu oraingoan berrikuntza. Hauteskunde logikatik at geratzeak, eta erakunde barruan kargu instituzionalik duen pertsonarik ez onartzeak, bi erabaki horiek sekulako harridura eragin dute eremu politikoan. Berebiziko garrantzia dute bi erabakiok, estatuak ukitzen duen edozer usteltzen den Mexiko horretan. Alegia, karrera politikoa egin nahi dutenek ez dutela lekurik izango FZLN erakunde berrian.